



EUSKAL TELEBISTA

BAGARRA
zurekin

Egiteko beste modu bat





Datorren otsailaren 23an ETBko hauteskunde sindikalak ospatuko dira Bilbon eta Miramonen. Lau urte iragan dira ETBn (Bilbon zein Miramonen) langileen gehiengoaren babesa lortu zuen sindikatua bihurtu ginenetik. Ez dira errazak izan lau urte hauek: pandemia luze bat eta egonkortze prozesu baten hasiera kudeatzea suertatu zaigu. Era berean, behin-behinekotasunaren aurka borrokatzen jarraitu dugu eta langileen eskubideen aldeko eta hitzarmenaren urraketen kontrako lana egunerokotasuna izan dira. Gogor lan egin dugu epaitegietan, mobilizazioetan eta negoziaketa mahaietan. Lorpen ugari izan ditugu, baita oraindik konpondu gabe baina borrokan dihardugun afera nahiko ere.

LAB, lan sindikalaren erreferentzia. Tamalez, lehen hiru urteetan ETBko langile guztien defentsa bakardadean egin behar izan dugu, langileen ordezkari den beste sindikatu batek beste alde batera begiratzen zuen bitartean. Hau horrela izanik ere, ez dugu etsi eta gai nagusiak beste eragileekin adosteko borondatea erakutsi dugu beti; berebizikoa baita langileen batasuna borroka sindikalean.

Horregatik, **harrotasunez eta ohore osoz esan dezakegu lau urte hauetako lorpenak geugandik sortu eta geure ekimenari esker izan direla.** Egin ahal izan ditugun akatsak ere, gure gain hartzen ditugu, noski, eta ez

dugu gure erantzukizunik saihesten. LABeko delegatuok arriskatu egin gara, adorea erakutsi dugu, ez gara kikildu langile klasearen interesen defentsan eta beste langile ordezkari batzuen lobby izaera salatu dugu. Koherentzia eta justizia irizpideak oinarri izan ditugu.

Pluralak, hurbila eta gardenak, eguneroko arazoei aurre egin diegunak. Lau urte hauetan hurbiltasuna eta gardentasuna eskaini ditugu. **Edozein momentutan, ordutan eta edonon jaso ditugu zuen kezka eta arazoak. Langileek beti izan dute erantzun bat gure aldetik, gardenak, zintzoa,** errealitatean oinarritua, eta gure helburuak zein prozedurak argi eta garbi azalduz. Beti errepikatzen dugu inoiz ez diegula langileei karnetik eskatzen arazoak konpontzeko, eta sindikatua tresna dela, ez helburu bat. Ez gara tranpetan aritzen, eta gatazka kolektiboak lehenesten ditugu "afiliazio kanpainak" diren irtenbide indibidualen aurrean. Egiteko beste modu bat erakutsi dugu, sindikatu ezberdina gara. Guztiona.

Olatua gara. 2019tik inork gutxi sinetsi zitzakeen egoerak pairatu ditugu eta akordio historikoak lortu. Gure lanaz harro gaude, baina erronka ugari ditugu aurretik eta horrexek bultzatzen gaitu, hain zuzen ere, datorren otsailaren 23an gure aldeko bozka eskatzera.

AZKEN 4 URTEETAN EGINDAKO LANAREN BALORAZIOA

LAB behin-behinekotasunaren aurkako txertoa. ETBk bigarren mailakotzat jotzen zituen langileen defentsan aritu gara: iruzurrezko kontratazioak salatuz, epaiketa guztiak irabazi ditugu (2019tik 49 langile mugagabe ez-finko egitea lortu dugu, 2014tik 76) eta behin-behineko langileei urratzen eta ukatzen zitzaizkien hitzarmen-artikuluak defendatu ditugu (lapurtzen zizkieten plusak, antzinasun aitortzak, baimen eta oporraldi eskubideak, 12 orduko atsedeen tarteen bermatzea...). LABek hasitako borrokari esker, behin-behinekotasun kontratu zitalenak inoizko daturik baxuenean daude. Hala ere, lan asko dugu oraindik aurretik.

2022an, 57 langile finkotzea lortu zuen LABek. Gure ekimen eta grinaz aurrera eramandako borroka eta negoziaketaren emaitza izan zen. Zaila zirudien, baina lortu genuen. Langile horien guztien eskubideen defentsan aritu ginen, LABen gertukoak izan zein ez, afiliazio siglak begiratu gabe. Koherentziaz, justiziaz eta lan asko egin ondoren, **ETBn lortu den akordiorik garrantzitsuena gure ekimenaren** eta lanketaren ondorioa izan zen. Handik gutxira AENA sententzia erabiliz lortu ziren 27 pertsonen finkotzea, prozesu horren ondorio logikoa izan zen.

Langileen bizi eta lan baldintzak hobetzeko borroka. Hitzarmenetik kanpo dauden ordutegi ankerrak salatu ditugu eta egunero ematen diren hitzarmen urraketari aurre egin diegu. Langileek bizitza eta lana duintasunez uztartu ahal izatea izan da gure helburua. Izan ere, lau sosen truke ez dute gure bizitza baldintzatuko. Gure ekimenak izan dira, besteak beste, menpekotasuna duten familikideak zaintzengatik enpresak ematen dituen dirulaguntzei emandako bultzada (hitzarmeneko 52. artikulua) eta ordaindugabeko baimenen birformulazioa.

Bilboko lan zentroan programetan externalizazio saiakerak geldiarazi ditugu. En Jake programan ETBk egiten zuen iruzurrezko langile lagapenaren auzia irabazi genuen partzialki eta horrek **behin betiko muga bat jarri zion Bilboko informatiboen eta programen pribatizazio nahiei.**

Pandemia garaiak. Ez dugu ahaztu behar 2020 eta 2021 artean bizitakoa. Pandemiako lehen garaietan gure helburua aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak ekiditea eta, era berean, langileen osasuna bermatzea izan zen. Erabaki zailak hartu behar izan genituen (hitzarmena bertan behera uztea,



ordutegien moldaketa, lan asignazio gabe zeuden langileen soldata bermatzea, ikastaroak, guardiak...). Une latzak izan ziren, baina trebeziaz maneiatu eta negoziatu genuen egoera hura, beste sindikatuak batek beste aldera begiratzen zuen bitartean.

Egonkortze prozesuaren kudeaketa eta barne sustapena. Prozesua hasi zenean ez zen erraza izan hitzarmenak eskatzen zuen aurretiazko barne oposaketa deialdia bertan behera uztea. LABek prozesuaren helburua behin-behinekotasuna murriztea zela garbi ikusten zuen eta barne oposaketa ezabatzea adostu genuen. Era berean, finkoen promozio aukera babesteko barne sustapen deialdi ezberdindu bat martxan jartzea lortu dugu.



Inoiz ez da horrelako erabakirik hartu baina egoera ulertuz prozesuak ezberdintzea lortu dugu, kanpo deialdiko plazak aukera berdintasunean lehia daitezten eta, era berean, modu gehigarrian, langile finkoek promozio eskubidea izan dezaten.

Egonkortze prozesuaren hastapenetan enpresak ezkutuan mantendu nahi zituen plazak ateratzeko gai izan gara, nahiz eta oraindik ere plaza kopuru hauek ez

duzen egiturazko plantillaren auzia asetzen. Prozesu honen oinarrien negoziazioan, aurretiaz salatu izan ditugun ETBko miseria eta akatsak atera dira eta gure helburua langile guztien aukera berdintasuna bermatzea izan da, Madrilgo lege "trakets" honen sorburuan dagoen irizpidea bistatik galdu gabe, beti ere.

- ✓ 57 (+27) langile finkotzeko akordio historikoaren bultzatzaile nagusiak.
- ✓ 49 langile mugagabe ez-finko bihurtzea lortu ditugu 2019tik 2022ra.
- ✓ Langileriaren aintzinasun errearen aitortza lortu dugu.
- ✓ Bilboko programetan externalizazioa saiakerak geldiarazi dugu.
- ✓ Pandemia garaian soldata eta lanpostuak bermatu ditugu.
- ✓ Egonkortze prozesuan plaza guztiak kanpo lehiaketara ateratzera lortu dugu eta, era berean, finkoentzat barne sustapen prozesu gardena bermatuz.
- ✓ Mantenimendu, dokumentalista eta plangintza kategorien fusioa lortu dugu, urteko goi mailak 14 pagatan izatea, artezleen soldata igoera, ITko plusa behin-behineko langileen jardunaldietan, menpekotasun laguntzen formulazioa (hitzarmenaren 52. artikulua) eta beste hainbat...



ZER ESKAINI DEZAKEGU?

Hitza eta ekintza. EITB Median, LAB da gehien hazten ari den sindikatu eta ez da kasualitatea. Langile asko eta asko ari dira LABera batzen, izan gure ideiekin bat egiten dutelako, izan bere eredu sindikal konprometitu eta solidarioa baloratzen dutelako, edo, badakitelako gurekin hitza eta ekintza batera doazela. Ilusioa eta borrokarako grina daukagu; eta badakigu, baita ere, indarrak bildu eta antolatzen bagara, den-dena lortzeko gai garela. Zeregin honetan ez gara bakarrik egongo, kalitatea frogatua duten sindikatu baten

baliabideak dauzkagulako: aholkularitza teknikoak, juridikoak, lan-osasuna, ekintza sindikala...

Hurbiltasuna, eguneroko lana. Aurkezten dugun **hautagai zerrendaren konpromisoa erabatekoa da. Hurbiltasuna eta gardentasuna eskaintzen dugu**, behar diren erantzunak emateko inongo trabarik gabe (erosoagoak zein deserosoagoak izan), erabakiak hartzeko, borrokatzeko edota negoziatzeko adorea eta borondatea erakutsiz. Edonon eta edonoren aurrean.

Aurrerapauso handiak egin ditugu gutxiengotik abiatu eta ETBko sindikatu nagusia izan arte, eta aurrean ditugun erronka ugari eta potoloei heltzen asmatzen jarraituko dugu.

LANGILE GUZTIOK BERDINAK GARA

Oraindik ere lehen eta bigarren mailako langileak daude. Enpresa honetako arduradun eta lan arloko beste eragile batzuk eroso daude ezberdintasun honekin. LABek gogor borrokatzen jarraituko du bere osotasunean langile klasearen alde: finkoa izan, mugagabe ez-finkoa izan, behin-behinekoa, afiliatua izan zein ez, kategoria zehatz batekoa edo bestekoa...

LAN JARDUNALDI ETA PLANGINTZA DUINAK

Plus gisa ordaintzen diren lau sosek ez dute gure bizitza baldintzatuko. LABek lan egutegi eta plangintza jakinak eta egonkorrak bultzatuko ditu. Aste (egun) batetik besterako egutegien aldaketak ekidin eta oporraldi, jai eta Z-ak bermatzea aldarrikatuko ditugu.

Urte osorako egutegiak ezin dira izan salbuespen, arau baizik. Langile guztiok berdinarak gara eta guztiontzat berdina eskatzen dugu.

IT TXANDAKO LANGILEEN DEFENTSA

IT "marroneroa" (barne ITa) ezizenez ezagutzen dena birformulatu: lehengo behin-behineko langileen praktika ankerren oinordeko bihurtu da. Lanordu eta jardunaldien egonkortzea nahi dugu. Errotazio ezagun eta gardenen alde egingo dugu.

UMtako ITko langileak pairatzen ari diren hitzarmen urraketa eta abusuak borrokatuko ditugu.

OPERADORE ETA KAMERALARI KATEGORIEN BATERATZEA

Frogatua geratu da operadore eta kameralari lantaldeak bakarra izan behar duela. Negoziatzen eta borrokatzen jarraitzen eta jarraituko dugu lehen mailako eta bigarren mailako langileen bizi baldintza eta soldatak berdintzeko.

BARNE SUSTAPENA

Barne sustapen deialdiak bultzatu ditugun arren, oraindik langileen promozio profesionala atzamarrez esleitzen da. Langileen aukera berdintasunean sinesten dugu eta horren aurrean sor daitezkeen muga eta horma guztiak apurtzen jarraituko dugu.

GESTORE SISTEMAREN AURKA BORROKAN JARRAITU

Aspaldiko borroka bada ere, ez dugu amore emango EITB Mediako gestore sistema ilunarekin bukatu arte. Hitzarmeneko postuak hitzarmenaren baitan egon behar dute. Gestore sistema, iluna, diskriminatorioa eta langileriaren kristalezko sabaia da.

TELELANA BULTZATU

Telelana arautzeko neurriak proposatuko ditugu, lana eta langilegoaren bizitza pertsonala egokitasunez uztartzeko. Bizitza erdigunean.

ZERBITZU PUBLIKOA, PLURALTASUNA ETA EUSKARA

Herri honetako komunikabide nagusi gisa erantzukizun bat dugu euskal jendartearekiko. Kalitatezko euskarazko edukien alde borrokatuko dugu eta etxe honek Jaurilaritzan dauden alderdiekiko erakusten duen menpekotasuna salatzen jarraituko dugu, pluraltasuna aldarrikatzearekin batera. Telebista publikoa gara, hau ez da Sabin Etxea.

Esku artean
duzu eskaintza
sindikala
eraldatzailea
eraginkorra
solidarioa
ekintzailea



Babesa



Sostengua



Elkartasuna



Bultzada



Indarra

*Egiteko beste
modu bat*





GURE HAUTAGAITZA

1. **ARITZ LEGARRETA-ETXEBARRIA EGUSKIZA (Erredakzio laguntzailea)**
2. **IRATI GARZIA ARZANEGI (Operadorea)**
3. **SEGISMUNDO GONZALEZ HERRERO (Soinu teknikaria)**
4. **IBON IDIGORAS (Erredaktorea)**
5. **IDOIA DE DIOS MERINO (Dokumentalista)**
6. **ASIER ZUBIZARRETA AGIRRE (Operadorea)**
7. **DAVID SAUCE GONZALEZ (Planifikatzailea)**
8. **OIER ARANTZETA ARREGI (Operadorea)**
9. **RAFA NOYA MANSO (Erredakzio laguntzailea)**
10. **EDURNE ABAITUA (Produkzio Ingeniaria) (Independentea)**
11. **SARAI RODRIGUEZ PINTO (Administrari laguntzailea)**
12. **HODEI AZUETA KORTA (Errealizazio laguntzailea)**
13. **MICHAEL JIMENEZ LOPEZ (Laguntzaile teknikoa)**
14. **IBAI GOTI URIBE (Sareeteko laguntzailea)**
15. **ANDER PARODY GARAI (Errealizazio laguntzailea)**
16. **AINHIZE GIL ZANGITU (Operadorea)**
17. **ESTIBALIZ BAGLIETTO GARTZIA (Kameraria)**

LAB